

EUSKERAZAINZA TA ERRIOXA

Euskalerrria uste baño zabalagoa da. Ez dute bakarrik zazpi lurraldeak osatzen. Orren eredu ortxen daukagu Errioxa. Moruen uztarpetik aske gelditu ondotik, Nafarroa'RI ERANTSIA AGERTZEN ZAIGU; Nafarroa'ren barrenean. Ori garbi ikusten dugu Kukulla'ko San Millan' en, toki zoragarria benetan.

Euskalerrria'ri bi alderditik ematen dizkio argitasunak Errioxa'k. Sinismenaren aldetik itzala ederra eskuratzen digu, Andik sortutako lekaidetxeak abek dire: Araba'n amar, Nafarroa'n iru, Gipuzkoa'n bat. San Millan izeneko elizak berriz: Nafarroa'n amabi, Araba'n amar, Gipuzkoa'n lau. San Millan izeneko erriak: Bizkaia'n lau, Araba'n bi.

San Millan'go kobetan daude gure kobetako kristau sustraiak.

Gañera esan dezakegu, Errioxa'n Nafarroa'ko itzala andia dela, batez ere San Millan'en. Goien (Suso'n), lenengo eliza, kobetako inguruan, Iruña'ko erregeak, Santxo Abarka'k eraiki zuen 984'garren urtean . 998'garren urtean berriz Almanzor'ek dena erre zuen. Nafarroa'ko erregeak Santxo III'garren "Andia" delakoak altxa zuen berriz eliza, dena aundituz, gaur oraindik goien ikusten dena.

Beko lekaidetxea ta eliza erromanikoa, Nafarroa'ko erregeak Garzi IV'garrenak egin zuen, amaika garren gizaldian.

Gañera, San Millan'en idatzi zituzten euskarazko esaldi zarrenak, 992'garren urteren inguruan, "Bezerro de San Millan" delako liburu zar zarrean. Antxen agertzen dire lenengo bi esaldi euskaraz idatzita: "IZIOKI DUGU-GUEK AJUTU EZ DUGU".

Lenengo olerkiak erderaz Gonzalo de Berzeo olerkariak egin zituen. San Millan'go zuzendaria zen, Berzeo errixka'n sortua. Idazle onen olerkiak euskal itzez josiak daude: "ARDURA" amairu aldiz, "ASMAR" larogei, "ZATIKO" BI ALDIZ, "BILDUR" ALDI BAT, "BASKA" BAT ETA ABAR.

Tokien izen aunitzek euskal aztarnak dauzkate: "LIZARDE", "ARTAZAR", "MENDIKAS", "URRE", "IRUELA", "PIKOMENDAIZA", "GARMENTERI", eta abar.

EUSKERAZAINZA delako euskeraren erri akademiak elburu bat dauka: euskara garbia ta errikoa zabaltzea. Gañera aurtengo Irallaren 21'tian ekintza berexi bat zuzendu bildu gera San Millan'en. Izan dugu Meza abestiekin euskaraz, bertan. Goiko eliza ikusi ondotik, illen otoitza egin dugu Santxo Abarka, Santxo III'garren Andia delakoa ta Garzia IV'garrena Nafarroa'ko erregeen alde, euskaraz; "GURE AITA" denen artean euskaraz abestua izan da.

Anaiarteko bazkaria Badaran'en euki dugu; "lursagarra lukainkarekin" ta "arkumearen saieskiak erreta", dena "ardo gorriakin" bustia. Bazkarian bersolariak euki ditugu, Asier Lejarreta mutil gazteak eman zuen asiera. Jose Mari Muruak jarraitu zuen, "EUSKARAZAINZAK ERRIOXA'KO SAN MILLAN'EN..." BERSOEKIN. Azkena Paulino Solozabal zetorkigun amabi kopleekin "KUKULLAKO SAN MILLAN'ERI..." kantari:

"egi-egitan esan giñake
KUKULLATARREN ARGIAK

izan zirela euskaldunentzat
zerutar itur bidiak”.

Maikide bakoxtari doai eman zitzaion LATXAGA'ren liburua: “ERRIOXA'KO
SAN MILLAN EUSKAL ITURRI”. Liburu onek dakar San Millan'en abesti baka-
rra euskaraz ezagutzen duguna, Jon Oñatibia'k egiña. Ala dio bukaeran:

“SAN MILLAN, APAL TA ALTSUA,
-AU GARAI ZAKARRA-
EUSKALERRIAK BERAZ BA DU
ZURE BEARRA”.

Bersolariekin benetako euskal giroa sortu zen bazkarian.

Arratsaldean, “CAÑAS'KO” lekaime etxera urbildu giñen, Urraka lekaimearen pare gabeko arpegia ikustera; ba du begiratu ona ta Jainkoak ematen duen zorionezko atsegiña. Nafarroa'ko erregeak, lurralde galantak eman zizkien Bizkai'ko jauntxo indartsuei. Urraka delako lekaimea, Lope de Haro Bizkai'ko bederatzi garren Jaunaren alaba da.

Errioxa'ko ibillialdi eder onekin, urrats aundi bat eman da Errioxa esna dedin eta entzun dezan, oraindik lotan daukan euskal sena. Errioxa'rekin onezkoak egin bearrak ditugu, an ere euskara pixtu dedin. Emen dugu lenengo urratsa emana. Ezin dugu ezer utsean galdu; Errioxa Euskalerrian sartzea lortu arte.

LATXAGA

“RIKARDO ARREGI” DELAKO KAZETARITZA SARIA

Orain dela bizpairu illabete eskutitz bat jaso nuen eta barrenean orrialde bat zegoen neri adierazia, eta Patxi Baztarrika'k izenpetua, baita beste paper bat iru zatitan tolestatua izenburu onekin: “RIKARDO ARREGI KAZETARITZA SARIA”.

Sari orren ekintza, gertakizuna bezala, bearrezkoa zeritzaidan. Ikustaldi batean bi elburu izango zitulakoan nengoan:

a) Albistaritza ta, b) izkuntza zaintzea. Berriak ematerakoan jarri esaldi laburrak argi ta garbi agirian, euskara berriz egokia. Bide ortik jarraitzekotan, ara sariaren garrantzia.

Bañan zer ikusi nuen eskutitz orren barrenean?: mugarik gabeko esaldiak, asmo illunak eta euskararen ordeztu “ROMANCE” bat, euskara erderaren morrontzapean.

Idaztia mugarik gabeko esaldi luze ta illunarekin asten da. Ikus: